

Hizkuntza aldaerak telebistan

Asier Larrinaga Larrazabal

ETBko Euskara Saila

Hogei urte dira euskara ikus-entzunezko esparruan sartu zela, Euskal Telebistaren eskutik (ETB sortu aurreko ahalegin xumea ez dut aintzat hartuko). Era guztietako kritikak egin zaizkio Euskal Telebistako euskarari, gehienak zuzentasunaren ikuspegitik. Orainsu arte zuzentasuna izan da euskal hiztunen eta euskararen sustatzaile-begiratzaileen kezka eta ardura nagusia, baina azkenaldian egokitasuna bihurtu da kezka eta ardura guztien sorburu. Ezin da bestela izan, gramatikaren arauak betetzea ez baita berme nahikoa komunikazio egoeraren eskakizunei ondo erantzuten zaiela ziurtatzeko.

Ikus-entzunezko euskara egokia den epaitzeko, nahitaezkoa da alde zuretik urrats bi egitea.

I. Hizkuntza aldaerak zein diren jakitea eta aldaera bakoitzaren ezaugarriak zehaztea.

II. Telebistako saio mota bakoitzean zein aldaera erabili behar den argitzea.

I. Hizkuntza aldaerak aztertzen hasita, lehenengo sailkapena egin behar da. Hainbat eredu dira baliagarri. Nik, komunikazio ekintzaren eskema hartuko dut oinarri. Eskema jakintzat emanda, beste barik hasiko naiz sailkapena egiten.

1. ERREGISTROAK

Komunikazio kanalaren arabeko aldaerak.

1.1. Ahozko erregistroa. Hartzaileari entzunezko kanaletik heltzen zaion aldaera. Ahozko erregistroaren gramatika, testu eta testuinguru ezaugarrien multzoari ahozkotatasuna deritzo.

1.2. Idatzizko erregistroa. Hartzaileari ikusizko kanaletik heltzen zaion aldaera. Idatzizko erregistroaren gramatika, testu eta testuinguru ezaugarrien multzoari idatzizkotatasuna deritzo.

1.3. Erregistro mistoa. Idatziz sortu eta ahoz igortzen diren testuei dagokien erregistroa da, hain zuzen ere, ikus-entzunezko komunikabideetan nagusi diren testuei dagokiena. Erregistro mistoa ahozkotatasunaren eta idatzizkotatasunaren elkargune zabala da, honako ezaugarri pragmatiko eta testual hauek dituena.

ERREGISTROAK			
Ezaugarria	Ahozkoa	Idatzizkoa	Mistoa
<i>Kanala</i>	Entzunezkoa	Ikusizkoa	Entzunezkoa
<i>Komunikazioa</i>	Bat-batekoa	Prestatua	Prestatua
<i>Kodea</i>	Hitzezkoa eta beste hainbat	Hitzezkoa funtsean	Hitzezkoa eta beste hainbat
<i>Informazioa</i>	Bururatu ahala hautatua	Zorrozki hautatua	Zorrozki hautatua
<i>Testuaren egitura</i>	Irekia	Planifikatua	Planifikatua
<i>Kohesioa</i>	Hein batean doinuerak eta erritmoak bideratua	Lokailuek bideratua	Lokailuek bideratua funtsean

2. ESTILOAK

Solaskideen arteko harremanaren araberako aldaerak. Egoeran-egoeran, era batekoa edo bestekoa izaten da solaskideen arteko harremana, are solaskide berberak izanda ere. Estiloak ere, horrenbestez, era batekoak edo bestekoa izaten dira. Izan litezkeen estilo guztiak zehazten hasi beharrean, muturreko biak ematen dira normalean.

- 2.1. **Estilo formala.** Solaskideek elkar hartzeko modua gizarteko adeitasun eta begirune arau guztiekin jantzen duteneko estiloa.
- 2.2. **Estilo kolokiala.** Solaskideek aldartea eta sentimenduak ezkutatu edo mozorrotu barik elkar hartzen duteneko estiloa.
- 2.3. **Estilo neutroa.** Mutur bien erdian dagoena.

3. DIALEKTOAK

Hiztunaren ezaugarrien araberako aldaerak. Multzo handi bi bereizi behar dira:

- 3.1. **Geolektoak.** Hitztunaren jatorri geografikoaren araberako aldaerak.
- 3.2. **Soziolektoak.** Hitztunaren kultur eta gizarte ezaugarrien araberako aldaerak. Soziolektoak era askotara sailka daitezke, baina hona hiruko banaketa bat ekarriko dut, irizpidetzat hizkuntzaren zaintze neurria erabiliz.
 - 3.2.1. *Goi-mailakoak.* Maila honetako soziolektoei hizkera zaindu, landu eta jaso ere esaten zaie. Hitzun ikasiak bakarrik heltzen dira hizkuntza aldaera hauen jabe izatera.
 - 3.2.2. *Erdiko mailakoak.* Hizkuntza arauak betetzeari garrantzi handia ematen zaio maila honetako hizkeretan, baina, aldi berean, hitzun gehienek erraz samar ulertzeko moduko hizkerak izaten dira.
 - 3.2.3. *Behe-mailakoak.* Hizkera arrunt eta arduragabe ere esaten zaie. Hitzun ikasigabeekin eta gizartean onarturiko hizkuntza arautik kanpo dagoenarekin loturiko soziolektoak dira.

Erregistroak	Ezaugarri sintaktikoak
<i>Idatzizkoa</i>	· <i>Zein</i> erako erlatiboak ager daitezke. · Perpaus elkarketa baliabide ugariz eta era konplexuan.
<i>Ahozkoa</i>	· Ez da <i>zein</i> erako erlatiborik agertuko. · Perpaus elkarketan emendiozko juntagailuak ugari.
<i>Mistoa</i>	· <i>Zein</i> erako erlatiboak ager daitezke. · Perpaus elkarketa baliabide ugariz; ez oso konplexua.

Estiloak	Tratamenduak
<i>Formala</i>	· Berorikakoa ager daiteke. · Hikakoa inoiz ez.
<i>Kolokiala</i>	· Hikakoa ager daiteke. · Berorikakoa inoiz ez.
<i>Neutroa</i>	· Zukakoa beti.

Mailak	Ahoskera
<i>Goi-maila</i>	· Harmonia bokalikorik ez. · <r, rr> hortz-hobietakoak. · Bokal arteko kontsonante ahostunak ez dira galtzen.
<i>Erdiko maila</i>	· Harmonia bokalikoak gerta daitezke. · <r, rr> hortz-hobietakoak. · Bokal arteko kontsonante ahostunak gal daitezke.
<i>Behe-maila</i>	· Harmonia bokalikoak. · <r, rr> ubularrak izan daitezke. · Ohikoa da bokal arteko kontsonante ahostunak galtzea.

Hizkuntza aldaerak zein diren jakinda, aldaera bakoitzaren hizkuntza ezaugarriak aztertu eta zehaztu beharra dago. Hauek adibide batzuk baino ez dira.

II. Bigarren urratsa, hizkuntza aldaera bakoitza zein saio motatan erabil daitekeen argitzea da. Lehenengo, beraz, programa motak bereizi behar dira, eta horretarako, berriro ere, komunikazio ekintzaren eskema hartuko dut oinarri.

Ezer baino lehen, argibide bat. «Esatari» diodanean, hedabidearen onespenera eta hedabidearen izenean pantailan mintzatzen diren esatariak, aurkezleak, kazetariak eta aktoreak adierazi nahi ditut. Esatari ez denari «ikusle» esango diot. Berez, ikuslea, saioari begira egoten da, pantailaren aurrean zein estudioan. Horrek ez du baztertzeko batzuetan programan era bateko edo besteko parte hartzea izatea.

Testuinguru pragmatikotik hasita, solaskide biak esataria eta ikuslea direnean, gerta liteke elkarrekintzarik ez egotea bien artean, alegia, ikuslea hartzaile pasiboa

izatea. Bestela esanda, esatariak helarazten dion informazioa bereganatu baino ezin du egin ikusleak.

Edo gerta liteke elkarrekintza egotea, alegia, ikuslea solaskide parte-hartzailea izatea. Bestela esanda, informazioa bereganatu ondoren, esatariari erantzuteko aukera du ikusleak hedabidean bertan. Batzuetan ikusle guztiei eskaintzen zaie erantzuteko aukera, telefonoz, esate baterako, eta beste batzuetan ikusle batzuei bakarrik, aditu, gonbidatu edo inkestatu gisa.

Horrez gainera, beste batzuetan, ikusleak ez du parterik komunikazio ekintzan. Elementu arrotza da, ez baita solaskideetako bat. Komunikazio ekintza gertatzen ikusten du, kanpotik, behatzaile gisa.

Testuinguru semiotikoari dagokionez, erreferentzi emaileak ikuslea, komunitatea, mundua edo fantasia izan daitezke.

Saio mota bakoitzean komunikazio egoera zelakoa den jakinda, errazagoa da zein aldaera erabil daitezkeen esatea.

Elkarrekintzarik ez			Elkarrekintza bai			Ikuslea arrotza		
<i>Ikuslea</i>	<i>Komunit.</i>	<i>Mundua</i>	<i>Ikuslea</i>	<i>Komunit.</i>	<i>Mundua</i>	<i>Komunit.</i>	<i>Mundua</i>	<i>Fantasia</i>
	publizitatea							
	albistegiak							
	emankizunak							
	magazinak							
	dokumentalak							
	erreportajeak							
			lehiak.					
			elkarrizketak					
						filmak		
						telesailak		
						marrazki bizidunak		

Telebistan, erregistro mistoa da nagusi. Ahozkoa, elkarrizketen eta eztabaiden zati batzuetan baino ez dugu topatuko. Idatzizkoa, uste baino sarriago erabiltzen den arren, azpidatzitako produktuetan bakarrik ez da izaten osagarri soila.

Oro har, hartzailea ikuslea denean, estilo neutroa erabili behar da, gutxienez. Saio mota batzuetan, hala ere, estilo kolokialerantz jo daiteke, esaterako, iragarkietan, magazinetan, kirol albisteetan eta festa eta ospakizun giroko emankizunetan, baina neutrotik gehiegi urrundu gabe. Ikuslea komunikazio ekintzatik kanpoko elementua denean, muturrik formalenetik muturrik kolokialenera arteko estiloak topatuko ditugu.

Mailei dagokienez, hartzailea ikuslea denean, erdiko mailako hizkerak topatuko ditugu. Albistegi, erreportaje eta dokumentaletan, gainera, hizkerak jasoagoak izaten dira. Dena dela, ikuslea solaskide parte-hartzailea denean, ikusleak berak jaisten

du askotan hizkeraren maila. Ikuslea komunikazio ekintzaren so-egile hutsa denean, era guztietako soziolektoak aurki daitezke: epaileen argot jasoak, kaleko gazteen hizkera zabarra.

Geolektoei dagokienez, telebistan **aldaera batua** erabili behar da, alegia, ezau-garri geolektalik gabea. Lurralde baterako egiten diren saioetan, hango geolektoa erabil daiteke, betiere gogoan izanda badirela aldaera batuak hitzun komunitate osorako direnak, eta badirela eremu geografiko bateko komunitaterako bakarrik direnak.

Ikusleari parte hartzeko aukera ematen zaionean, bere geolektoa erabiltzea guztiz zilegi da, eta kode batua ulertzeko zailtasunak dituela konturatuz gero, esatariak ikuslearen geolektora hurreratzeko ahalegina egin behar luke. Ikuslea behatzaile soila denean, geolektoek tokia izan dezakete, testuinguru semiotikoaren ardatza komunitatea bada.

Saio motak	Erregistroak	Estiloak	Mailak
<i>Publizitatea</i>	mistoa	neutroa	erdikoa
<i>Albistegiak</i>	mistoa	neutroa	erdikoa
<i>Emankizunak</i>	mistoa	neutroa	erdikoa
<i>Magazinak</i>	mistoa	neutroa	erdikoa
<i>Dokumentalak</i>	mistoa	neutroa	erdikoa
<i>Erreportajeak</i>	mistoa	neutroa	erdikoa
<i>Lehiaketak</i>	mistoa + idatzizkoa	neutroa	erdikoa
<i>Elkarrizketak</i>	mistoa + ahozkoa	neutroa	erdikoa
<i>Filmak</i>	mistoa / idatzizkoa	denak	denak
<i>Telesailak</i>	mistoa / idatzizkoa	denak	denak
<i>Marrazki bizid.</i>	mistoa	denak	denak

Goiko taulak ez ditu biltzen emandako azalpen guztiak, baina oso baliagarria da, konkomitantzia bat erakusten duelako, hain zuzen, estilo neutroa eta erdiko mailako hizkera hainbat bider batera erabiltzen direla. Aldi berean estilo neutrokoa eta erdiko mailakoa den aldaerari **aldaera orokorra deritzo**.

Hona iritsita, badakigu telebistako programa bakoitzean zelako euskara erabili behar litzatekeen. Erabiltzen denaz, hartara, erraz eman behar genuke egokitasun epaia. “Genuke” esan dut, hari honek korapiloren bat edo beste baitu oraindino askatu barik. Izan ere, batetik, euskararen aldaera batzuk ez dira behar bezala karakterizatu oraindino. Bestetik, hainbat aldaera existitu ere ez dira egin euskararen, telebistak pantailaratu ez dituen arte.

III. Horren guztiaren osagarri, beraz, euskarak ez dituen çcaldaerak edo ondo garatu gabe dauzkan aldaerak sortzeko, bultzatzeko eta aberasteko ikerbideak finkatu behar dira. Nire ustez, ikerbideak hiru dira.

- Hizkuntza biziaren arakaketa.
- Inguruko hizkuntza ereduaz azterketa.
- Sormena.

Ez naiz orain alderdi bakoitza sakonki aztertzen hasiko, beharbada askoz baliagarriagoa baita adibide bat ematea. Euskal Telebistan igarri dugun hutsunerik handiena soziolektoei dagokiena denez, *Hasiberriak* telesaileko gidoilari eta elkarrizketalariei ETBko Euskara Sailak eman zien eredia jarriko dut adibidetzat. Gazte hizkeraren eredu bat da, jakina, honela osatu genuena.

Hizkuntza bizia arakatzeko, berariazko inkesta bi prestatu ditugu orain arte, bata sexuari buruzkoa eta bestea drogari buruzkoa. Drogari buruzkoak itxura hau dauka.

2. DROGAK

2.1. DROGA MOTAK

2.1.1. ALKOHOLA

2.1.1.a Alkohola, oro har

2.1.1.b. Ardoa

2.1.1.c. Garagardoa

2.1.1.d. Kola eta rona

2.1.1.e. Gina eta tonika

2.1.1.f. Gina eta limoia

2.1.1.g. Ardoa eta kola

2.1.1.h. Vodka eta laranja

2.1.1.i. Bestelakoak

2.1.2. BESTEAK

2.1.2.a. Marihuana

2.1.2.b. Haxixa

2.1.2.c. Heroina

2.1.2.d. Kokaina

2.1.2.e. Anfetamina

2.1.2.f. Speed-a

2.1.2.g. Besteak

2.2.b. Pastillak

2.2.c. Hautsa, pilo estu eta luzanga batean ipinita

2.2.d. Pasta gogortua

2.2.e. Injekzioa

2.2.f. Paper zati batean jarritako LSD tanta

2.3. KONTSUMOA

2.3.1. KONTSUMITZEKO ERA

2.3.1.a. Edatea

2.3.1.b. Irenstea

2.3.1.c. Erretzea

2.3.1.d. Sudurretik hartzea

2.3.1.e. Zainean injektatzea

2.3.2. KONTSUMITZEKO

BITARTEKOAK

2.3.2.a. Erretzeko papera

...

2.2. DROGA ERABILI EDO

ERA

2.2.a. Zigarroa

ESKURATZEKO

Inkesten bidez eta kaleko gazteek esaten dutenari erreparatuz, hainbat hitz eta esamolde bildu ditugu. Hauek, esate baterako.

Zarraztada bota.

Txiza egin.

Txahala egin / Txahala bota.

Gonbito egin.

Azken ostikadak jo.

Zerbaiten azkenetan jardun.

Upela.

Tripa lodia, gizona.

Kaka jatea dauka horrek.

Ahaztu hori. Ez hartu aintzat pertsona hori.

Hau da harria!

Desesperatzeko zorian gaudenean esatekoa.

Ze suma ibili.

Zeregin jakin barik egon.

Gorri ibili.

Parrandan edo zeregin askorekin ibili gelditu gabe.

Gogoan izan genuen, jakina, gazte hizkera zelakoa den hizkuntza guztietan: estilo kolokialekoa da, eta erdiko mailatik goragokoa inoiz ez. Sintaxian, esate baterako, ezaugarri hauetan gauzatuta dago izaera hori.

· Gazte hizkeran hitzen ekonomia da lege: berba egitean adierazteko modu motz eta bizietara jotzen da.

· Perpausa osatzen duten elementuak ordenatzeko, ahozko erabilera izan behar da gogoan eta informazioa helaraztea jarri behar da lehentasuntzat.

Ezaugarri horien haritik, honako baliabide hauek proposatu dizkiegu, besteak beste, Hasiberrien testuak sortu behar zituztenei.

· Aditz laburketez baliatu galdera, agindu eta promesetan.

- Nahi? (*Nahi duzu?*)

- Bihar deituko! (*Bihar deituko dizut!*)

- Gustatzen? (*Gustatzen zaizu?*)

· Esaldi laburrak egin, aditz metaketa saihestu, erlatiboak eta egitura korapilatsuak soildu... Perpaus landuegiak, hanpatuegiak eta aldrebesegiak lekuz kanpo daude.

· Informazioaren zati handi bat esaldiaren hasieran jarri behar da.

· Perpaus nagusia perpaus menderatuaren aurretik jarri.

Asmatutako gauzak ere proposatu dizkiegu, *txatean aritu*, esate baterako, gaur egun hainbat eta hainbat gaztek Interneten izaten dituzten solasaldiak adierazteko.

Hasiberriek uztailan amaitu zuten lehen denboraldia eta oraingo hilean hasi dute bigarrena, pantailan izandako arrakastari esker. Agerian dago hasieran aipatu ditudan hogeitau urteak ez direla alferrik joan, Euskal Telebista egiten dugun pertsona guztion artean ezerezetik ikus-entzunezko hedabideetako hizkuntza izatera eraman baitugu euskara.

BIBLIOGRAFIA

AGOST, R. (1999). *Traducción y doblaje: palabras, voces e imágenes*. Bartzelona: Ariel.

CASSANY, D. (1996). *Describir el escribir. Cómo se aprende a escribir*. Bartzelona: Paidós.

ETBKO EUSKARA SAILA. (2000). *Tratamenduak ETBko fikzioan*. Barne-txostena.

- _____ (2001). *Hasiberriak. Euskararen gaineko irizpideak*. Barne-txostena.
- EUSKALTZAINDIA. (1990). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III (Lokailuak)*. Bilbo.
- _____ (1998). «Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua». *Euskera* 43: 2, 485-490.
- HERNANZ, M. L.; BRUCART, J. M. (1987). *La sintaxis. I. Principios teóricos. La oración simple*. Bartzelona: Crítica.
- VIGARA TAUSTE, A. M. (1992). *Morfosintaxis del español coloquial. Esbozo estilístico*. Madril: Gredos.
- VILLASANTE, L. (1980). *Hacia la lengua literaria común*. Oñati: Editorial Franciscana Aranzazu.
- ZUAZO, K. (2000). *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania.